


FUNTSEZKO JARDUERA

Gure enpresak hainbat funtsezko jarduera bete behar ditu, enpresak ondo jardun dezan.

Funtsezko baliabideak bezalaxe, ezinbesteko funtsezko jarduerak izan beharko ditugu. Gure funtsezko jarduera ekoizpena edo produkzioa izango da, diseinua, kantitate jakin batzuetan produktua egitea eta entrega, hau da; neurri handiko arropa diseinatu eta bezeroei entregatzea edo saltzea. Baina, oso garrantzitsua izango da enpresaren webgune onlineko denda edo plataformako edo sareko jarduerak kudeatzeko plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozioa handiago izateko, eta internet bidez gure bezeroak arropa ikusi dezakete eta gu beste aldetik beraiekin harremanetan egongo gara.

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utziko ditugu eta beste batzuk guk geuk egingo ditugu. Gure ustez, pertsona bakoitzak egiten eta gozaten dakien zerbaitetan lanean egon behar duelako, beraz, lana banatu eta bakoitza zerbaitez arduratuko da.

Aldiz online webgunea kanpoko pertsona baten esku utziko dugu, horretan espezializatua dan norbaiten esku. Horrez gain, banatzailea arduratuko da erosleen arropak etxera arte eramatea. Beraz, online webgunea eta banaketa ez ditugu guk egingo, kanpoko enpresa batzuk arduratuko dira hortaz.



Iturria: expansion.com

Grafiko hauetan, azken urteetan jendearen erabili dituen erosketa moduak ikus ditzakegu. Argi dago, gehienek denda fisikoan erosten dutela. Gainerakoek ordenagailu eta mugikor bidez erosten dute, hau da, online webgunearen bidez. Nahiz eta grafiko hauek 2019. urtekoak izan, uste dugu, webgune bidezko erosketak gora egin dutela. Gainera, gazteek gero eta gehiago erabiltzen dituzte sare sozialak,

adibidez, Instagram. Beraz, ondorioztatu dezakegu, online erosketen kantitatea handitu egin dela.